

Mikel Zuluaga 'Piztu' txostenaren egilea atxilotu dute Garzon epailearen aginduz

Desobedientziari buruzko lana dela-eta deklaratzeko prest agertu arren, atxilotu dute

Erredakzioa / Bilbo

Mikel Zuluaga desobedientzia zibilaren aldeko *Piztu* txostenaren egilea Bilbon atxilotu zuten, atzo arratsaldean, Baltasar Garzon epailearen agin-

duz. Espainiako Poliziak bere etxeko atarian atxilotu zuen Zuluaga bere neska-lagun eta umearekin etxera bueltatu zenean. Lekukoek adierazi zuten, poliziak arrastaka eta kolpeka eraman zuen Zuluaga. Mikel Zu-

luagak Entzutegi Nazionalan idatzi bat aurkeztu zuen *Piztu*-ren egilea zela esanez, baina Garzonek ez zuen onartu. Ondoren, lekuko gisa deklaratzeko prest azaldu zen, eta erantzunik eman gabe atxilotu egin dute.

Agentziak / Bilbo

ESPAINIAKO POLIZIAK Mikel Zuluaga ezker abertzaleko militante historikoa, Santi Brouard taldeko kidea eta *Piztu* txostenaren egilea atxilotu zuen atzo arratsaldeko 18:00ak aldera. Zuluaga Bilboko Aretzaga kaleko bere etxeko atarian atxilotu zuten bere neska-lagun eta umearekin etxera bueltatu zenean.

Zuluaga arrastaka eta kolpeka eraman zuten poliziek hark *Desobedientzia, desobedientzia* oihukatzen zuen bitartean. Poliziek Mikel Zuluagaren neska-laguna ere jo zuten, han bildutako auzokideek salatu zuten.

Amnistiaren Aldeko Batzordeetako abokatuek adierazi zuten, «*Piztu* txostenaren egilea dela onartu ostean, Garzonen aurrean deklaratzeko prest zegoela jakinarazi zuen Mikelek. Ondorioz, edozein unetan deklaratzera joateko deia espero bazuen ere, ez genuen uste gauzak horrela gertatu zirenik». Abokatuak Entzutegi Nazionalarekin harremanetan jartzen saiatu ziren atzo, baina iluntzea bitartean behintzat, ez zuten inolako erantzunik jaso, eta ez zuten Zuluagari buruzko berririk.



PABLO S. QUIZA

Zumalabe Fundazioa babesteko prentsaurrekoan parte hartu zuen Zuluagak: atzean agertzen denetako bat da.

'Piztu txostena', 'Itzali' operazioaren oinarri

Urriaren 5ean, Baltasar Garzon epailearen aginduz, hainbat herri ekimenetako kideen kontrako operazioa egin zen, desobedientzia zibila bultzatzearren akusaziopean. Bertan, Joxemi Zumalabe Fundazioa, ABK eta Bai Euskal Herriari ekimenetako bederatziki kide atxilotu zituzten, eta

bost espetxean dira oraino. *Itzali* izeneko operazio horren oinarri *Piztu* izeneko txosten bat izan zen, eta Garzonek ETArene zela esan zuen. Mikel Zuluagak, baina, operazioa gertatu eta berehala idatzi bat aurkeztu zuen Garzonen aurrean txostena berak egin zela azalduz, eta ETArene ez zela esanez. Zuluagak berak azaldu zuenez, *Piztu* txostena Herri Mugimenduen

II. Topaguneko mintegi bate-rako egin zuen, eta helburua izan da modu baketsuan desobedientzia zibilaren bidea lantzea», adierazi zuen. Garzonek orduan ez zuen Zuluagaren idatzia aintzat hartu. Ondoren, abokatuek Zuluagak lekuko gisa deklaratzeko prest zegoela jakinarazi zioten epaileari, eta orain, atxilotzeko agindu du.

EAJ, PSE-EE, EA eta IUK begi onez ikusi dute Irungo EHko zinegotzien jarrera

■ PP eta UArentzat, ordea, salbuespena baino ez da

IRUNGO EHko zinegotziek Madrilgo atentatua «basatitzat» joz eta ETari gelditzeko eskatuz aurkeztu idatziak eman zuen atzo zeresanik. PSE-EEko Rodolfo Aresen positibotzat jo zuen EHko kide batzuek ETaren kontrako «jarrera nahiko argia» azaltzea. Oraingoz horrelakoak oso «kasu bakanak» baino ez direla esan arren, jarrera horiek zabaltzea espero duela esan zuen. Iñaki Anasagasti jeltzaleak ere gauza bera esan zuen. «Imajinatzen dut HBn egongo dela jende sentibera, ETak ezartzen duen diktadura bortitzarekin ados ez dagoena», gaineratu zuen. Eako idazkari nagusi Gorka Knörren ustez, Irungo zinegotzien kasuak baieztatzen du «HBko zati handi batek kezka handia duela gertatzen denaren inguruan eta zuzendaritzaren norabide ezaren inguruan». Azkenik, IUKo Javier Madrazorentzat, Irungo zinegotzien kasua «jarraitu beharreko adibidea» da.

PP eta UA ezkorrago azaldu ziren. PPren ustez, «ezin zaio garrantzi handiegirik eman, ez baitira agintzen dutenak». UArentzat, berriz, «salbuespena» dira.

PSE-EEK dio Jaurlaritzak «iruzur» egin duela aurrekontuak luzatu dituelako

■ Ibarretxeren «gaitasunik eza» agerian geratu dela esan du Aresen

Agentziak / Bilbo

PSE-EEK uste du Jaurlaritzak «iruzur» egin diela herri-tarrei 2001. urterako aurrekontuak luzatuta. Neurri horrekin, lehendakariak boterean segitzeko asmoa erakusten duela azaldu du.

Rodolfo Ares Legebiltzarrean sozialisten eldunak adierazi du Jaurlaritzak inbertsioak bideratzeko gaitasuna eta gastu ahalmena «arriskuan» jarri dituela 2000. urteko kontu publikoak datorenerako luzatzean. Jaurla-

ritzak hala egin du Legebiltzarrean gehiengoa ez duela eta oposizioak atzera botako lukeelako proiektu berria.

Jaurlaritzaren arrazoiak Idoia Zenarruzabeitiak azaltzea nahi du PSE-EEK. Horregatik, interpelazio bat aurkeztu du Legebiltzarrean luzapenaren zioak argi ditzan. Sozialistek, izan ere, uste dute ondorio txarrak izango dituela herritarrentzat.

Aurrekontuak luzatzeko erabakiarekin Juan Jose Ibarretxeren gobernua «nabar-

men» geratu dela uste du, halaber, PSE-EEK. «Jaurlaritzaren aurrekontuen luzapenaren gobernua da», adierazi du Aresen, gogoratuz bigarren aldiz luzatu behar izan dituela.

«Ibarretxeren jokabideak errepublika bananero batena ematen du. Izan ere, ahalegin guztiak egiten ari da botereari eusteko eta alternatiba eragozteko», adierazi zuen Aresen, eta erantsi zuen halakorik ez dagoela «mundu osoan». «Mundu osoan ez dago gutxiengoan izanik,



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Isabel Celaa, Rodolfo Ares eta Victor Garcia, atzoko prentsaurrekoan.

aliantza guztiek porrot egin dutenean eta akordioak egiteko gaitasunik ez duenean borterean segitu nahi duenik», esan zuen Aresen. Egoe-

ra konpontzeko irtenbide bakarra hauteskundeak aurreratzea dela berretsi zuen PSE-EEko bozeramaileak.